

PuLunPe


161. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA

Elkar inoiz ezagutuko
ez dugulakoan nago,
baina, mozorropean,
denok gauza berberak
partekatzen ditugu



Joxe Jabier Elizalde, Pulunpeko banatzailea Illarregi eta Suarben eta aspaldiko kolaboratzailea



Illarregiko bordako etxeko sofán gaude, beheko solairuko labean prestatu berri dituzten kremazko opil batzuk dastatzen. Elkarriketa hurbila izan da, umoretsua, Joxe Jabier bezala. Aldizkariaren lehenengo zenbakitik kolaboratzailea dugu eta hilero bidaltzen dizkigu biñetak eta olerkiak.

Noiztik zara aldizkariaren banatzaile?

Aspaldi hasi nintzen, baina ez dut ongi gogoratzen... Hasiera batean eskolako haurrek banatu zuten, gero postariek... eta ez nuke jakinen noiz hasi nintzen... nik banatzen ditut aspaldi.

Nola egiten duzu banaketa?

Eguraldiaren arabera. Normalean txakurrarekin joaten naiz paseoa emanez banatzera. Aldizkariak koinatu baten etxean uzten dituzte, Gerendiainen. Berak deitu eta joaten naiz hartzera. Autoz itzuli eta gero paseo batean egiten dut lantxo.

Kolaboratzaile zara aspaldi, biñetak eta olerkiak bidaltzen dituzu askotan... zergatik laguntzen duzu Pulunpe?

Pulunpe eta irratia daukagun bakarra da hemen euskaraz. Euskararen alde naizelako, euskaltzailea naizelako eta euskara eta euskal kultura maite ditudalako kolaboratzen dut aldizkariarekin.

Nola ikusten duzu aldizkaria?

Beno, beti dago zertan hobetu, baina ez naiz ni hemen kritikatzeko hasiko...

Esan lasai...

Tira, primeran egongo litzateke kolaboratzaile

berriak egongo balira, gazteak...

Zure biñetez gain, zer duzu gehien gustuko aldizkarian?

Kar, kar, kar... Begira, biñeta eta olerkiak ea norbaitek irakurriko dituen pentsatzen dut askotan...

Behintzat motzak eta koloretsuak dira, lepoa joko nuke mundu guztiak irakurtzen dituela...

Poesiaren mundua nahiko berezia da... Begira, lehendabiziko zenbakia atera zenean olerki bat idatzi nuen aldizkarirako eta harrez geroztik jakin nuen bazela baten bat nire olerkien zain zegoena... Kriston poza da hori...

Miresle ezezagunen bat duzu, a ze inbidia!

Nik, olerki eta biñetak egitean, bilatzen dudana da ni neu asetzea, gustura geratzea. Besteek ze pentsatzen dutenari buelta gutxi ematen dizkiot... Behin izan zen polemika txiki bat biñeta batean, baina hori uste dut seinale ona dela, zerbait interesgarria ukitu zen seinale...

Umorea kritikarako erabilia izan da betidanik...

Biñetek injustiziak salatzeko balio dute, zirikatze-ko, behatza sartzeko....

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanói.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.
Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U
Lege gordailua: NA 721/93

2017KO MARTXOAREN 8AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

ARGAZKIA JAXINCC

Ametzaberni

Hitzak ala ekintzak?

MARTXOAK 3 LARRAINTZARRO BENTAN

Antzerkia
Ovarios verdes fritos
19:00

MARTXOAK 8

17:30 **Elkarretaratzea** Oihanzabal eskolan
Antolatzailea: Basaburuko Bilgune Feminista
20:00 **Manifestazioa** Iruñean (Gaztelu Plazatik)
Antolatzailea: Martxoaren 8ko batzordea

MARTXOAK 10

18:00-20:00 **Zaintzaren inguruko tailerra**
Oihanzabal eskolan
Antolatzailea: Basaburuko Bilgune Feminista
20:00 **Brindis-a** eta pregolaren irakurketa
Berueteke ostatuan
21:30 **Afaria** Orokieta ostatuan (izena eman aldeztu aurretik ostatura deituz)
Bukatzean ikuskizuna
Antolatzailea: Basaburuko udala

MARTXOAK 10 ARRAIZKO OSTATUAN

21:00 **ARIMA**
Kontzertua

MARTXOAK 11 ANOZIBAR

21:00 **Afaria**
Martxoaren 7ra arte izena emateko Odieta udalera deituz: 948 307258

MARTXOAK 11 OLAGE

Bazkaria
Izema emateko Anueko udalera deituz otsailaren 24a baino lehen: 948 307079
17:30 ikuskizuna **Pantxika Lamour**, "nik egin beharko"

MARTXOAK 12

Basaburuko kultur etxean (Aizarotz)

17:30 **Grandma**
Zine-forum
Antolatzailea: Basaburuko Bilgune Feminista

Ekintza guztietan **ludoteka** zerbitzua eskainiko da. 2 egun aurretik izena emanez telefono honetan: **948305353**

MARTXOAK 15 LARRAINTZARRO BENTAN

XIV.LABURBIRA: 8 film labur ematen dira.
Haien artean: **Beti bezperako koplak** (Bego Vicario, Agenda Kopla taldea)
Antolatzailea: Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea

MARTXOAK 17 Odieta udalera

19:00 **Indomables, una historia de Mujeres Libres**
Dokumentalaren proiektzioa
Dinamizatzailea: Basaburuko Bilgune Feminista

MARTXOAK 24 LARRAINTZARRO BENTAN

19:00 **Kapulana bat zintzilik**
Miren Amuriza
Kontu eta bertsoen ikuskizuna

MARTXOAK 31 LARRAINTZARRO BENTAN

19:00 **Las pelotaris dokumentala**
Eskualdeko emakume kirolariekin solasaldia.
Emakume kirolarien argazkia
Etorri argazkian parte hartzera!

MARTXOAK 31 Oihanzabal eskolan

18:00 **En tránsito**
Dokumentalaren proiektzioa eta bukatzean solasaldia zuzendariarekin eta dokumentalean parte-hartzen duen emakume batekin
Antolatzailea: Basaburuko Bilgune Feminista

ERAKUSKETAK

MARTXOAK 13-24 LARRAINTZARRO BENTAN

Mozambikoko, Brasileko eta Kubako garapenerako proiektuak ezagutuko ditugu. Mundukide Fundazioa

MARTXOAN Apeztegi berrin

Emakumeok historia egiten dugu
Antolatzailea: Basaburuko Basandereak



Grabazio historikoa!!
Nekazarri eguna
8 €
1988
1989
1990
1992
1994
1996
2014



5 orduko bideoa + argazkiak
Lekunberrin egindako edizio guztiak

euskaraz
bizi
nahi dugu

ULTZAMA - IRUÑA (eskola egunetan - iraila - ekaina)

GELDIALDIAK	ORDUTEGIAK
ARRAITZ	6:40
ALKOTZ	6:41
IRAIZOTZ	6:43
IRAIZOTZ (Urban.)	6:44
LARRAINTZAR	6:46
AUZA	6:48
ELTZABURU	6:51
CRUCE SUARBE *	6:50
AUZA	6:54
LARRAINTZAR	6:55
LIZASO	6:57
GERENDIAIN	6:58
ZENOTZ	6:59
GERENDIAIN AITONA	7:00
GOLF ULTZAMA	7:01
URRITZOLA	7:01
LATASA	7:02
ERRIPA	7:04
ZIAURRITZ	7:05
OSTITZ	7:07
PAMPLONA	7:25



Gure ingurugiroa, zure erosotasuna
eta segurtasuna zaintzeko
erabili autobusa

IRUÑA - ULTZAMA - IRUÑA (lan egunetan urte osoan: astelehen - ostiral)

GELDIALDIAK	ORDUTEGIAK
PAMPLONA	9:05 13:00 15:25 19:40
OSTITZ	9:25 13:25 15:45 20:00
ZIAURRITZ	9:27 13:26 15:47 20:02
ERRIPA	9:28 13:27 15:48 20:03
LATASA	9:29 13:28 15:49 20:04
URRITZOLA	9:30 13:29 15:50 20:05
GOLF ULTZAMA	9:31 13:30 15:51 20:06
GEREN. AITONA	9:32 13:31 15:52 20:07
GERENDIAIN	9:33 13:32 15:53 20:08
ZENOTZ	9:34 13:33 15:54 20:09
IRAIZOTZ	9:35 13:35 15:55 20:10
ALKOTZ	9:36 13:37 15:56 20:11
ARRAITZ	9:38 13:38 15:58 20:13
ALKOTZ	9:39 13:39 15:59 20:14
IRAIZOTZ	9:40 13:40 16:00 20:15
IRAIZOTZ (Urban.)	9:41 13:41 16:01 20:16
LARRAINTZAR	9:43 13:43 16:04 20:19
AUZA	9:47 13:44 16:07 20:22
ELTZABURU	9:48 13:46 16:08 20:23
CRUCE SUARBE	9:49 13:48 - -
AUZA	9:53 13:51 16:10 20:26
LARRAINTZAR	9:55 13:52 16:12 20:28
LIZASO	9:56 13:54 16:14 20:30
GEREN. AITONA	9:58 13:55 16:18 20:33
GOLF ULTZAMA	9:59 13:56 16:19 20:34
URRITZOLA	10:01 13:56 16:20 20:35
LATASA	10:02 13:57 16:21 20:36
ERRIPA	10:03 13:59 16:22 20:37
ZIAURRITZ	10:03 14:00 16:23 20:38
OSTITZ	10:05 14:02 16:25 20:40
PAMPLONA	10:25 14:23 16:45 21:05

EMAKUMEEN EGUNA



MARTXOA

ERAKUSKETA
"Emakumeok historia
egiten dugu"

Apeztegi berrin: Martxoaren 1etik-14etara
Orokietako Posadan: Martxoaren 15etik-31etara



ORGI BASOA JENDAUERREKO ORDUTEGIA

Urtarrila, otsaila eta martxoa
Igandetan goizeko 11:00etatik 14:00etara.
Informazio gehiago www.bosque-orgi.com

Ordutegi hauek informazio gunerako balio dute.
Basoaren sarrera irekia dago beti.

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzazuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaituz!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugil@gmail.com

Behi fabrika, sektorearen bukaera?

Hilabete mugitua izan da abeltzainen sektorean. Batetik, Danoneren aurkako mobilizazioak hastear daude Baztan aldean eta, bestetik, behi-esnearen aldeko ekitaldi bat antolatu zuten produktu honen kontsumoa gomendatzeko. Duela aste batzuk Soriako behitegi erraldoiaren proiektua aurrera zihoala iragarri zenetik, afera honek erantzun handia izan du estatu mailan. Horri buruz luze eta zabal idatzi da, baina gure erantzukizuna da gaiaz informatzea.



Ziaurizko Valle de Odieta kooperatibak ez du hitz egin nahi ustez aurrera daraman proiektu handiaren inguruan: "Ez dugu deklaraziorik egiten", erantzun ziguten. Haiek mutu badaude ere, mundu osoa horri buruz hitz egiten ari da.

Gure aldetik zenbait puntu azpimarratu nahiko genituzke:

-Hedabide eskuindarrek afera honen hasieran azpimarratzen zuten Nafarroako Gobernuak proiektua atzera bota zuela eta horregatik beste leku batera joan behar izan zutela, nolabait kritikatu zuten gobernuak ez zituela enpresak laguntzen. Estatu mailako hedabideek kontu berarekin jarraitu dute; baina, beste iturri batzuei galdetuta, Pulunpe aldizkariak jakin du hori ez dela horrela, Kaparrosoko ustategia handitzeko baimena bazutela baina ez zutela erabili. Iturri horiek diotenez, ez da egia Nafarroak baimena ukatu diela, ez dute eskatu ere egin 20.000 behiko "fabrika" egitea eta, gainera, Nafarroan egitea ezinezkoa omen da: minda barratzeko eremua ikaragarri handia beharko litzateke, eta, dirudienez, ez dago horretarako lur nahikorik.

-Kaparrosoko alkate Aquilino Jimenezekin bertako ustategiari buruz hitz egin dugu eta komentatu digu bere ustez "orokorrean zonalderako eragin positiboa" izan duela ia 5.000 animalien esplotazioak: "Hasieran hitzarmen bat sinatu zuten herriko jendea kontratatzen saiatzeko eta jende dezente sartu zen, nahiz eta gero, askok, abeltzaintza lana zein gogorra den ikusita, atzera egin zuten".

Gizartearen erantzunaren bila?

Halako proiektu erraldoiek aurrera ateratzeko dirutza behar dute. Inbertitzaileek dirua jarri aurretik ziurtatua izan behar dute ez dela aparteko arazorik izanen. Horregatik, askotan, halako "proba-albisteak" sortzen dituzte: gizartearen erantzuna ikusteko iragarki handiak egiten dira, atzetik beste guztia lotuta ez badago ere. Kasu honetan, gizartearen erantzuna handia izaten ari da: Estatu mailako eta hurbileko hedabide askok albisteak eta erreportajeak prestatu dituzte gai honen inguruan. Ez dago argi kontrako erantzuna neurtzen ari diren edo ez; bai, ordea, erantzunaren eta mobilizazioaren garrantzia handia dela.



Hauek dira orain arteko deialdiak:

-Elizondan, martxoaren 25an manifestazioa.
-COAG plataformakoek, estatu mailan sinadura biltzeko bat hasi dute, interneten bidez eta baita pertsonaz pertsona ere.



ANDONI GARCIA, COAG PLATAFORMAKO KIDEA:
"PROIEKTU HONEK EZ DU INOLAKO ZENTZURIK"

1977. urtean sortu zen COAG koordinadora, eta gaur egun estatu mailan abeltzain eta nekazarien interesak defendatzen duen plataforma handiena dugu, 220 bulegorekin. Garciak esan digu proiektua erabat arbuiatzen dutela: "Ez du inolako zentzurik". Hona hemen egin diogun elkarrizketa luzearen zenbait pasarte:

-Esne kuotak kendu baziren ere, Europatik orain diru-laguntzak ematen ari dira ekoizpena jaisteko. Beste ekoizpen eredu bat behar da.

-Lan eredu prekarioa ekarriko luke Noviercas herriko ustategiak: Estatu Batuetako "fabriketan" langileak baldintza kaskarretan lan egiten duten etorkinak dira.

-Gaztela Leongo Ingurugiroko kontseilariak duela pare bat aste deklaratu zuen ez zegoela aurkezturik ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanik.

-Behin baino gehiagotan hitz egin dugu Pulunpen supermerkatuetan esnea amu gisa erabiltzen dela; merke-merke jartzen dute dendaren sarreran, Bezeroa barruan dagoenean beste gauza batzuk erosteko. Garciak gogoratu digu delitua dela esnea kostu prezioa baino merkeago saltzea.



ESNE BRINDISA IRUÑEAN

Sektoreak arazo asko ditu. Horien artean, gizartearen esnearen kontsumoa gaizki ikusten hasia dela, "gizakia naturako animalia bakarra da haurtzaroz geroztik esnea kontsumitzen duena".

Kordoba, Errioxa, Gipuzkoa, Mostoles, Leon, Nafarroa, Bizkaia eta beste leku askotako esne ustategietako abeltzainak Iruñeko alde zaharreko erdialdean bildu ziren, "esnearekin eta esnearen alde" topa egiteko. Albaitaritza aldizkariak antolatu zuen ekitaldi honetan, zenbait hizlari izan ziren, haien ar-

tean Nafarroako Gobernuak Landa Garapena, Ingurumena eta Toki-Administrazio Kontseilari Isabel Elizalde.

Esne sektoreak Nafarroan duen garrantzia nabarmendu zuen eta azpimarratu zuen horrek "lurralde antolamendu eta landa eremuko garapen egoki baten alde gure bailaretan populazioa eta jarduerak izaten jarraitzea" ahalbidetuko duelako.

Aldizkari horren zuzendariak nabarmendu zuen kontsumitzaileei argi utzi nahi dietela "esnea dieta anitz eta orekatu batean oinarrituko elikagaia dela".

DATU INTERESGARRIAK:

-“Amigos de la Tierra” taldeak egindako ikerketaren arabera, Noviercasen ekoiztutako esnea pizzetan sartzeko gaztarako erabiliko da.
-Euskadiko behien kopurua 20.000 ingurukoa da, bertan jarri nahi dituzten parekoa.

-Egunean 4 eta 6 milioi ur litro artean kontsumituko lirateke, Soriako biztanleak kontsumitzen dutena baino gehiago

-Urtean sortuko litzatekeen minda kopurua 4 milioi pertsona inguruk sortzen dutena baino gehiago izango litzateke.

Ihoteak, udaberriari ongietorria



A maitu da Ihotea eskualdeko herri gehienetan. Hala ere, herriren bat geratzen da inauteria beranduxeago ospatzen duena. Otsailean eta martxoan izan ditugu, eta tokien ariora oso ezberdinak izan dira.

Eskolan, ostatuan, etxez etxe eskean, herriko plazan... hainbat leku dira ospakizun honetarako aproposak, eta hala aritu dira eskualdeko txoko ezberdinetan: Larraintzarko eta Jauntsarasko eskoletan, Muskitzen, Berueten, Igoan, Larraintzarren, Ziaurritzen, Anotzibarren, Olaguen, Lantzen...

Azken horiek dira eskualdeko ospetsuen eta jende gehien biltzen dituztenak. Aurten ere, inaute igandean haurren eguna ospatu zuten, eta astelehen eta asteartean inauteri handia. Astelehenean eguraldi ederra izan zen, eta asteartean pixka bat okertu bazen ere, iluntzerako eguraldi ona geratu zen. Parrandak ostatuan jarraitu zuen gero.

Baina, inauteri txikiagoei ere arreta jarri behar diegu, jakina. Txikiak baina bizitasunez beteak dira Anotzibarkoak. Duela urte gutxi berreskuratu zuten ospakizunetarako ohitura, eta pertsonaiak ere badiutuzte. Akerra suaren inguruan dantzan ari den bitartean, inkisidorea da sutan erretzen dutena. Lantzen inauteriaren aurreko larunbatean izan zen hau. Ihote kolore eta soinuez neguari agur esanen diogu eta udaberriari ongietorria eman.

Sukaldaritza ikastaroa Muskitzen



Norberaren jakintza partekatzea ederra da, eta zerbait praktikoa lortzeko bada, are gehiago. Hala aurkeztu zuten Muskizko sukaldaritza ikastaroa, bertaratzen zenak sukaldaritza kontu berriak ikasiko zituen, baina baita zekiena irakatsi ere.

Alfredo Muskizko alkatea sukaldari trebea da, askotan ikusi dugu etxean egindako labea har-



tuta jaki ederrak egiten. Oraingoan Muskizko Itsasoeneako elkartearen aritu dira Imozko hainbat lagun Alfredok gidatutako ikastaroan, ikasten eta irakasten.

Eta ikasitakoaren fruituak ikustea gauza ederra da, kasu honetan dastatzea. Izan ere prestatu eta gero janari hori guztia jan beharra dago, eta mahaiaren inguruan bukatu dute ikastaroan aritu direnak.



Kolon minbizia detektatzeko kanpaina abian



Azken egunetan gutunak iritsi dira eskualdeko etxeetara. Bertan kolon eta ondesteko minbiziaren inguruko azalpen zehatzez gain, badago halako "kit" bat ere etxean norberak probak egin ahal izateko. Eskualdeko Osasun Zerbitzuetaoek esan digutenez, analisi egunetan eraman behar dira proba horiek: goizeko bede-

ratzi eta erdiak baino lehen asteazkenetan Jauntsarats eta Olaguen eta asteazken eta ostiraletan Larraintzarren.

Kolon eta ondesteko minbizia Nafarroan sarrien diagnostikatutako tumorea da. Haren tratamendu eta sendatzea errazagoa da garaiz detektatzen bada, eta goiz diagnostikatzen denean, % 90 sendatzen da. Aldiz, aurreratutako faseetan diagnostikatzen bada, biziraupena % 50era murrizten da.

Egindako ikerketetan, tumore inbaditzaileen % 75 garaiz detektatu dira, eta kasu horietan tratamendua askoz leunagoa izango da; sintomak azaldu izanaren ondorioz fase aurreratuago batean detektatuko gaitzaren kasuan, berriz, tratamendua askoz gogorragoa da.

Minbizi mota hori prebenitzeko bizitza-estilo osasungarriak izatea garrantzitsua da, eta horren barnean sartzen da elikadura egokia, ariketa fisikoa egitea eta alkohola eta tabakoa ez kontsumitzea, besteak beste.

Oilagorra saltzeak ez du isun larririk



Aurreko Pulunpen argitaratu genuen albiste bat oilagorra saltzeak ekartzen ahal dituen isunei buruz. Esan genizuen oraindik ez zegoela argi zenbateko isuna ezarri behar zieten hegazti hau eskaini zuten hiru jatetxeri, tartean Ultzamako bati.

Egun hauetan Ingurumen Departamentuak adierazi digu isunak "arinak" direla. Nafarroako ehiza legearen 100. artikulua dio isun arinak ezarriko direla, 50 eta 500 euro artean, eta ehiza baimena hilabete eta urtebete artean kendu ahal izango dela, baina ez du ezer zehazten salmentari buruz.

Jesus Narrika Ollo hil zaigu



Lantzen bertako euskaldun zaharrak hiltzen ari zaizkigu. Azkenetakoa Jesus Narrika Ollo izan da, Golpitxeneko nagusia. Otsailaren 12an ezustean joan zaigu "Narrika", 78 urtetan. Goian bego.

Lantzen orain bertan bizi diren euskaldunetan azkena izanen dugu, noski. Hori bai, ez dugu ahanztekoa Julian Beuntza Ilarregi, Danbolin, euskaldun ederra, joan den hiru urtean Elizondoko Xahartegian dagoena.

Pentsatu ere pentsatzen dugu Iruñea aldean euskaraz dabilen lantzarren bat izanen dela. Ea bakarren batek informaziorik ematen digun. Eskertuko genioke.

Zorionez, uste dugu euskarak oraindik ere Lantzen badiela etorkizuna. Bada jende gaztea euskara ikasi duena, gaueskoletan eta euskaltegietan. Kanpotik etorritako euskaldunak ere baditugu, eta gero, haurrak eta gaztetxoak, Ultzamako eskoletan ikasi dutenak.

Zuen esku dago gure hizkuntzaren, gure herriaren geroa. Izan fier.



Araztegi berria du Lantzek



Zaharkitua zegoen jada, urak alde egiten zuen hainbat zirrikitutatik eta ur zikina errekarara iristen zen, araztegi zaharrak zeukan fosa ez baitzen gai ur guztia ongi garbitzeko. Gainera, Luis Mariñelarenak esan digunez, zaila

zen jakitea urak nondik ihes egiten zuen. Bada, bi hilabetez lanean aritu ondoren (eguraldi txarrak lanak luzatu baititu), araztegi berria martxan da. Mankomunitatearen barnean egonda, Lantzek ez du dirurik jarri lanetan, eta NILSA enpresak egin ditu.

Sistema berritzaile bat jarri dute, sistema biologiko bidez egiten baita garbiketa: Lehenbizi, dekantazio bidez igarotzen da ura, beheko fosara pasatzen da gero, eta bertan, garbiketa biologikoa egiten zaio belar berezi batzuekin, zorne belarrekin, aintziretan izaten ohi direnak.

Bihotzekoak jota hil da txirrindularia



Egunero ikusten ditugu txirrindulariak gure errepidetan. Goizero-goizero gizon eta emakume talde handiek erabiltzen dituzte

gure bailaretatik pasatzen diren errepideak. Ezbeharra Urritzako Bentetatik 200 bat metrora gertatu zen, Basaburuko norabidean, gizona bizikletatik erori zenean.

Lorenzo Garde, 68 urtekoa, jubilatutik zegoen. Txantreako taldearekin ibili ohi zen. Jauntsarasko Apeztegi berrin askotan hamaiketako hartzen zuen horietako genuen. Errepidean bertan suspertzen saiatu ziren, eta baita helikopteroan eraman ere, baina ezin izan zuten salbatu.

“Muntaia poliziala” salatu du Sarasateko 12ak taldeak

Iazko urriaren 8an, Iruñeko Sarasate pasealekuko eraikin bat okupatzeagatik hiru lagun auzipetu dituzte, haien artean Ziaurrizko bizilagun bat. Otsailaren 27an epaitu zituzten eta 15 hilabeteko kartzela zigorra eta 7.000€tik gorako isunak eskatzen dizkiote bakoitzari. Atentatu, lesio eta usurpazio delituak egozten dizkiete. Honen guztiaren aurrean haiekin hitz egin dugu eta gogor salatu dute “muntaia polizial garbia”

dela hau guztia: “Estatuaren errepresio mekanismo baten aurrean gaude aldarrikapen sozial bat zantpatzeko”.

Beste 9 pertsonak ere deklaratu behar izan zuten eta oraindik epaitu ez badituzte ere antzeko zigor eskaerak eskatzen dizkiete. Prozesu honen aurrean, Sarasateko 12ak taldekoek “absoluzioa” eskatzen dute: “Hori litzateke irtenbide duin bakarra”.



IASOTAKO GUTUNA

Gure Goltxipo



Gaur eguzkirik ez dugu, gure zeruan, goibela ixil-ixilik joan zaigu inoiz ixiltzen ez zena.

Gizon txintxo, bizi, argia, alaitasunez betea, gaztetasunez jantzia, umore paregabea. Kanpotik horren bihurri, barrutikan hain zuzena.

Zure ahotsa landua erakusten zuen, benetan, zure bihotzaren hitzak, goxotasunez gainezka.

Zure oroimen polita geratu da gure artean: zutaz mintzatuko dira mendia, elurra ta haizea, zure borda ta belaiak, ostatua eta kaleak; zure etxeko lehioak, ihauteri eta bestak. Haurrak, ertainak, helduak, bertako ta kanpotarrak, klase guztietako jendiak.

Estimatzekoa da zein handi gure zortea: holako adiskide bat topatu gure bidean.

Geratu beti gurekin, etorri gure etxera: bihotzeko maipurua zuretzat dugu gordea.

Eman diguzunarengatik jakinez zorran gaudela, agurrik ezin erranez, gero arte lagun maitea.

EGILEAK: Zure lagunak

Ultzamako iruzurraren ikerketa bukatu da



Epaileak arrazoi pisutsuak omen ditu epaiketa hasteko: probatutzat ematen du 23 urteren buruan Iruñeko aholkulari batek eta bere alabek Ultzamako eta Iruñeko 50 familiari 12,9 milioi euroko iruzurra egin zietela.

Afera hau 2015. urteko udan ezagutu genuen gehienok, Nafarroako hedabideetan. Miguel Olagüe Roncal aholkularia epaitegian aurkeztu zuen bere burua eta onartu zuen milioi eta erdi euro inguru zor zituela. Eskandaluaren hasiera besterik ez zen izan. Urte horretako azarotik aurrera kartzelan dago, epaiketaren zain. “Piramide moduko iruzurra” jendearen gutizian du oinarri: konfiantzako pertsona batek sekulako mozkinak eskaintzen ditu

inbertsio baten truke. “Interes” hauek, (normalean %10 ingurukoak) beste inon ematen direnak baino altuagoak dira eta jendeak dirua sartzen du. Jendearen mozkinak ordaintzen dira jende berriak sartzen duen diruarekin eta horrek funtziona dezake betirako.

Kontua da normalean “krak” egiten duela jende berriak dirua sartzeari uzten diotenean. Estatu mailan sona handikoa izan zen “Forum Filatélico” kasua, adibidez.

Kasua eramaten duen epailearen arabera, 1992. urtearen bueltan hasi zen iruzurra eta 20 urte baino gehiago iraun ditu. Heldu diren hilabeteetan informatzen jarraituko dugu.

Ultzamak arazoak SGAEkin



epaiketa izan zuten.

Artisten eskubideak kudeatzen dituen elkarte da SGAE. Guztiok ezagutzen dugu azken urteetan hartu duen fama txarra: saldukeria, dirua banatzeko modu traketsa, salaketak edonon, polemikak... Eta orain Ultzamara ailegatu da arazoa. Aspal-ditik zetorren auzia azkenean epaitegietan bukatu da, momentuz. Kontua da, duela urte batzuk, bailara horretako udalak ez zuela eguneratuta antolatzen ziren ekimen kulturaletan artisten eskubide orokorreari ordaindu beharrekoa. Elkarte honen langileak salaketa jarri eta

Ultzamako udalak galdu du epaiketa, baina salatu dute bertan “irregulartasunak” egon direla, besteak beste SGAEk komertzial bera aurkeztu zuela testigu gisa. Askotan salatu da elkarte honen “modus operandi” irregularra: taberna txikietan irati eta telebista bat izateagatik dirutza eskatzea, mehatxu bidez funtzionatzea, jendearen ezjakintasunarekin jokatzeko eta halakoak. Halako egoera salagarrien aurrean, hedabide txiki edo ostalariek elkarte horren barruan dauden artisten zerrenda eskatzen dute, jakiteko zein jarri eta zein ez. Baina elkarte horrek ez du bidaltzen. Bestetik, SGAEk bidali zuen ustez Ultzaman aritutako musikari talde baten izena baina talde hori ez dago elkarte horren artisten artean, eta bailaran aritu ez ziren beste batzuen izena ere bidali zuten. Udaletik azpimarratu dute urte askotako “utzikeria” orain konpontzeko bidean dagoela eta hemendik aurrera askoz zorrotzago jokatuko dutela.

Saioa mendia eta Arraitz-Orkin **euskal** telebistan.



“Gailurra Neguan” saioa Andoni Aizpuruk eta Irati Andak aurkeztutako ETBko telesaioa da. Saioan eta Arraitz-Orkinen aritu ziren bertako istorio eta bitxikeriak Euskal Herriari erakusteko. Herriko jendea ezagutzeaz gain, telebistakoek Xabi Solano musikaria, Oinatz Bengoetxea pilotaria, Donato eta Patxi Larretxea aizkolariak eta Andoni Urbistondo irratiko kirol esataria gonbidatu zituzten. Guk Irati Anda aurkezle eta eskalatzailearekin elkarrizketa labur hau prestatu dizugu.

Nolakoa da grabazio eguna?

Pertsona talde handi batek osatzen du gure lan-taldea. Andoniren taldea mendi gailurrera abiatzen da, eta ni inguruak ezagutzen geratzen naiz. Gidoi bat prestatua daukagu eta horren arabera antolatzen dugu eguna: leku desberdinak ezagutu, bailarako pertsonak elkarrizketatu... Azken finean, telebistan ikusi ahal zen istorioa kontatzen dugu.

Nolakoa izan zen Ultzamako esperientzia?

Oso ona; jendea ezagutzea, inguru paregabeaz gozatzea... zoragarria izan zen. Eguraldia lagun izan genuen nahiz eta goizean hotz handia pasa. Nik ez nuen ingurua ezagutzen eta oso gustura egon nintzen; jendea oso jatorra eta parte-hartzailea iruditu zitzaidan: hitz egiteko prest eta gurekin eguna pasatzeko prest agertu ziren.

Lana goizean goiz hasten dugunez, eguna luzea egiten da, baina halakoa da telebistako filmazio lana, pentsa, eguna Benta Migelen afaria grabatzen bukatu genuen...

TELESAIOA BERRIZ IKUSI NAHI BADUZU, EITB.EUS ATARIAN DUZU, EDO TA SAREKO EDOZEIN BILATZAILATAN ‘GAILURRA NEGUAN ETA ULTZAMA HITZAK IDATZIZ.

Mendian lan egiteak ba al du berezitasunik?

Eguraldiaren menpe lan egiten dugu: egun polita ateratzen bada, kamerek eta halako materialek gutxiago sufritzen dute. Euria ez aritzea nahia-go dugu... Halere, Euskal Herriko giroa nolakoa den jakin badakigu...

Eskalatzailea zara eta orain telebistan lanean ari zara, nola uztartzen dituzu bi kontuak?

Eskalada nire pasioa da, eskalatzailea naiz eta izango naiz. Orain, lan kontuak direla eta, eskaladak ez du lehentasunik nire bizitzan; baina, tira, boladak izan ohi dira. Orain ez naiz goi mailan ari ez dudalako motibazio bera, baina Espainiako txapelketan parte hartzen saiatuko naiz; halere, entrenatu, egunero egiten dut, “sin falta”, bizioa da...


Eta non entrenatzen duzu?

Astegunetan “buldererra” joaten naiz, eraikin baten barruan prestatuta dagoen lekuan, baina asteburuetan, ahal badut behintzat, arrovara joan ohi naiz.

Gure **esku** dago Basaburua-Imotz Kultur Agenda



Aurreko alean, bakarrik Basaburuko taldearen argazkia sartu genuen, eta Imotzko koadrila polita ahaztu. Gure esku ere badago akatsak konpontzea.



- Martxoaren 25ean: Trikipoteo Basaburuko zenbait ostatueta.
- Apirilaren 22an Gure Esku Dagoko spot grabaketa (bi bailaretako leku desberdinetan; tokiak + orduak aurki zehazteko)

- Maiatzaren 20an Imotz eta Basaburuko Gazte Gaudia Latasako frontoian)
- Maiatzaren 28an mendi martxa Tipi Taupakoekin batera (ibilbidea zehazteko)
- Ekainaren 18an Galdeketa Eguna + pesta giroa Etxaleku eta Jauntsaratsen)

-Sinadura bilketarekin hasi gara! Gogoan izan, bi bailaretako 16 urtetik gorako biztanleriaren %10a behar dugula gutxienez sinaduretan, galdeketa ahalbidetzeko. Animatu!

-Gainera.... Kamixeta erakargarriak prezio herrikoietan APEZTEGIBERRIko dendan salgai!

Nazioarteko Emakumeen Eguna dela-eta hainbat ekitaldi antolatuko ditugu eskualdean. Ekintza horien artean, martxoaren azkeneko ostiralean, 31n, arratsaldeko 19:00etan, Larraintzarko Bentan, ekintza berezia martxan jarri nahi dugu. Kirol arloan eskualdeko emakumeen parte-hartzearen inguruan hausnarketa egin nahi dugu.

Horretarako gonbidatu ditugu profil ezberdina duten eskualdeko emakume kirolari batzuk haien bizipenak kontatzeko. Horretaz gain, talde-argazki bat egin nahi

dugu. Horretan parte hartzeko animatu nahi ditugu adin guztietako emakume kirolariak: kirolaria dena edo bere garaian izan zena, edozein kirolean aritzen dena, lanbide gisa edo aisialdian praktikatzen duena. Emakumea eta kirolaria bazara, animatu eta parte hartu! Nahi baduzu zure ekipamendua ekartzen ahal duzu (arropa, erabilitako tresnak, materiala...)

Argazkia 20:15ean egingen dugu. Argazkia hurrengo Pulunpen argitaratuko da.



Haurrak, gure herrien etorkizuna

Lantz omen da Estatuan haur gehien dituen herria. Datu hori plazaratu zuen INEk (Estatistika Institutu Nazionala) joan zen hilabetea, eta hedabideak purrustaka joan ziren herrira informazio bila. Isabel Baleztena alkateak egunero idazten zuen herriko "whatsapp" taldean hedabideak zetozeala esanez.



O-5 urte bitarteko haurrak 20 dira Lantzen, 151 biztanleko herrian. Biztanleria osoaren %13,4 da (Espainiako batez bestekoa %4,7 da). 0-14 urte tartera bagoaz, konturatuko gara haur asko dagoela Lantzen, eta benetan herri gaztea dela.

Berri pozgarri honek eskualdean isla ote duen aztertu dugu, eta azken 3 urteetan jaiotako haur kopuruari erreparatu diogu. Bailaraz bailara hona hemen utzitako datuak:

ANUE: Biztanleria osoa: 462 biztanle | 0-3 urte: 11 haur | Ehunekoa: %2,38
 ATETZ: Biztanleria osoa: 218 biztanle | 0-3 urte: 4 haur | Ehunekoa: %1,83
 BASABURUA: Biztanleria osoa: 871 biztanle | 0-3 urte: 13 haur | Ehunekoa: %1,49
 IMOTZ: Biztanleria osoa: 434 biztanle | 0-3 urte: 12 haur | Ehunekoa: %2,76
 LANTZ: Biztanleria osoa: 151 biztanle | 0-3 urte: 4 haur | Ehunekoa: %2,64
 ODIETA: Biztanleria osoa: 364 biztanle | 0-3 urte: 7 haur | Ehunekoa: %1,92
 ULTZAMA: Biztanleria osoa: 1668 biztanle | 0-3 urte: 29 haur | Ehunekoa: %1,73

Imotz haur gehien dituen bailara

80 haur jaio dira azken 3 urteetan eskualde osoan, eta horietatik 12 Imotzen jaio dira.

Bailararen biztanleriarekin konparatuta, biztanleko haur gehien izan dituen udalerria da Imotz, %2,76rekin. Txanponaren beste aldean, ordea, Basaburua dago %1,49rekin.

Urte batzuk atzera egingo bagenu, argi dago datuak bestelakoak izan liratekeela, baina haurren jaiotza kopurua boladaka doa, eta Basaburuan azken urteetan izandako "boom" hori akitu dela ematen du.

Antzeko boom bat bizi du Lantzek ere. Izan ere, Luis Mariñelarenak kontatu digunez, oraingo egoeraren kontrakoa ere ezagutu dute haiek. Bere haur-gazte garaietan antzeko "boom" bat izan zen, eta asko ziren Lantzeko eskolara joaten ziren haurrak. "Boom" hori akituta, ordea, urte asko izan dituzte oso haur gutxirekin, eta duela urte batzuk etorri da "boom" berri hau.

Gainera, herria gaztetzen doan heinean, zaharrak hiltzen ari dira. Atsekabez aipatzen digu Luisek 4 bizilagun galdu dituela herriak azken urtean, zahar zein ez hain zahar hil direnak.



INEk erakusten ez dituen datuak

Imotzen eta Lantzen haur ugari jaio dira azken 3 urteetan, baina urteotan datu horiek izanda ere, tendentzia beheranzkoa da zalantzarik gabe. Nahiz eta zenbait herri eusten dioten, beste asko husten ari dira, gaztez husten eta beraz, populazioa zahartzen.

Aldi berean, INEren datuak udalerriak emanak dira, eta beraz, udalerrien desgloserik ez du egingen, herriz herri jakiteko zenbatekoa den kopuru hori. Hala ere, ikus daiteke herri batzuek besteek baino gaztetasun gehiago dutela, haur asko jaiotzen direla. Basaburuan Aizarozko kasua dugu zalantzarik gabe argiena azken urteotan, baina Odietan badira bi herri hurrez beteak daudenak egun.

Ziaurritz eta Anotzibarren asko dira haurrak biztanleriaren kopuru osoarekin konparatuta. Ziaurritzen esaterako, 70 biztanle inguru dira, eta 0-14 urte bitartean 20 haur daudela komentatu digu Saioa Muñozek. Anotzibarren ere, nahiz eta datu zehatza ematerik ez dugun, aipatzen digute haurren portzentajea handiagoa izan daitekeela.

Beraz, etorkizunerako esperantza leiho batzuk zabaltzen dira gurean, baina errealitate orokorra bestelakoa da, eta momentuko datuek ezin dute beheranzko joera ezkutatu.



Haur eskoletan behera

Azken urteotako beheranzko joera hori oso argi ikus daiteke eskualdeko haur eskoletan. Imozko Ttikienan eta Ultzamako Xinbili Xanbalan ederki dakite hori, eta azken honetara, eskualdeko handienara jo dugu. Maitane Mendibe Larraintzarko bizilagun eta Xinbili Xanbalako zuzendari eta hezitzaileak honakoa esan digu:

Zein joera izan duzue azken urteotan?

2013an 37 haur genituen eskolan, eta geroztik behera joan da kopurua, iaz 17 izateraino, hau da,

10 haur gutxiago ditugu lau urte pasata.

Ondorioak izanen ditu horrek ezta?

Bai, ondorio zuzena hezkuntza modulu bat kokan egotea da, eta beraz hezitzaile baten lanpostua ere arriskuan egotea. Aurten 27 haur mantentzea espero dugu, edo behinik behin pixka bat bada ere igotzea. 27tik behera, modulua galduko genuke.

Ez al dago haurrik?

Erroldak ikusita haurrak badirela ohartu gara. Arazoa ez da ez dagoela, bestelakoa baizik. Eskutitza pertsonalak bidali dizkiegu eskualdean 0-3 urte bitarteko haurrak dituztenei [Imozkoei izan ezik, han Ttikiena haur eskola dutelako], bideo batekin batera, ea animatzen diren. Ate irekien jardunaldiak izan berri ditugu, baina eskolako filosofia, esentzia, lan egiteko erak ez dira guztiz ikusten, eta horregatik bidali diegu bideoa.

Eta zein da ba arazoa?

Hainbat arrazoi daude umeak haur eskolara ez ekartzeko, eta errealitatea da 4 hilabeterekin askok ez dituztela ekartzen hona. Langabeziak eragin zuzena du, geroz eta jende gehiago dago langabezian, eta, beraz, haurrak etxean izaten dituzte, beste batzuek eszedentzia hartzen dute, eta besteek aitatxi eta amaxirekin uzten dituzte. Iruñean lan egiten duten batzuek hango haur eskolara ere eramaten dituzte. Eta 4 hilabeterekin ekarri beharrean, batzuek haur eskolako azken urtean ekartzen dituzte, 2 urterekin, urtebete egin dezaten eskola handira joan baino lehen.


Eskualdean zerbitzu hau izatea baloratzen da?

Nik uste dut zerbitzuaren garrantzia ikusten dela. Zerbitzua beharrezkoa ikusten da, baina gero haurrak ekartzen dituzte familien egoeraren arabera.

Lantzeko "booma" nabaritu duzue?

Bai, azken urteotan Lantzeko haur asko izan ditugu, ikusten da herri potentea dela "produktzioari" dagokionez. Aurreko urteetan 6-7 haur genituen Lantzik etorriak, orain ordea 3, jeitsiera ere nabarmena da. Dena den, heldu den urtean beste bi haur etorriko zaizkigu handik.

Hau ikusita, probestu nahi dugu esateko haur eskoletako aurre-matrikulazio kanpaina martxoaren 15era arte izanen dela, eta matrikulatzea maiatzaren 19tik 26ra. Gonbite zintzoa luzatu digu Maitanek Xinbili Xanbala ezagutu eta haurrak bertara eramateko.



Vicente Gelos mutil gaztearen harrizko gurutzea

Orain zazpi urte kontatu genuen Etxalekuko Dorrotoko nagusia zaldi gainean etxe aldera zetorrela, atake bat eman eta nola hil zen; eta nola erori zen tokian jarri zioten harrizko gurutzea. 1876. urtean gertatua. Oraindik gurutze hori bere tokian dago.



Oskozko Donebelario Ermitako gurutzea.

Nahiko ttikitatik bagenuen beste gurutze baten berri ere. Igande arratsalde batez edo udako bakazio egunen batez, ondotik pasatzen ginean, bidetik zerbait baztertu eta bisitatzen genuen beste gurutze hori.

Altxurko dermioan zen gurutze hori edo, hobeki esan gurutze horiek. Bat handia eta harrizkoa, Altxurko zubia pasatu eta ezkerrean zen larrazko batean; karretera azpiko aldean zen eta honen kontra ia-ia. Bestea, burnizko gurutzetxo bat zen, Altxurko zubira iritsi baino lehen, Beltraneko partzela zenean, lizar bati josia, lurretik metro eta erdira baino goraxeago. Biak elkarrengandik 50 metrotara.

Bixenteren familiaz



Etxaleku. Julinea. Hemen ere bizitu ote zen Bixente?

“Mediku baten semia yun hemen hil zena. Lizarrian ehizin eoki eta handik saltatziakoan, eskopetatik tiroa atia eta seko mutille”

Lizar harren gainera zenbat aldiz ez ote ginen igan? Eta gurutzetxo harrek mutil gizajoaren heriotza zorigaiztokoa zekarkigun aldioro: “Mediku baten semia...”

Geroztik galdetu ere galdetu izan dut baina inork ez dit berri gehiagorik eman. Ez nor zen eta ez deus gehiago.

Udaleko heriotza agiriak ikustean, orain urte batzuk topatu nuen, nahigabe: “Vicente Gelos Erviti, soltero, de edad sobre diez y siete años”

Eta nola hil zen ere nahiko garbi jartzen du: “A causa de un disparo casual de la escopeta estando a la espera de caza”

Agiri hori 1880ko uztailearen 21ekoa da.

Uda bete-betean zen ehizan zebilela hil zen medikuaren semearen kontu hori. Lizar gainean espe-roan. Zer hegazti mota ote zuen espero?

Etxalekuko kanposantuan lurperatu zuten, baina mutil gizajo harren heriotza ez zuten inongo elizako liburutuan inskribatu, ez Etxalekun eta ez Erason, elkarren bekkixan dirudienez. Hori bai, eskerrak udaleko liburutuan sartu zuten, bestela ez genuen afera hau garbitzerik izanen.

Bixente Gelos Erviti Oskotzen jaio zen, Ramon Gelos Sada eta Maria Angela Erbitiren semea, 1863ko apirilaren 5ean, medikuaren etxean (Sagasti dermioan izaten zen etxe hori eta aspaldian ia-ia hondarrik ere ez da gelditzen, zimendu koxkorren bat ez bada)

Aita jaiotzez Gareskoa zen eta ezkondu ere bertan ezkondu zen 1835. urtean Josefa Ramona Goldarazena Iriarterekin, Ataungo alaba.

Geroztik non ibili zen ez dakigu, baina ustez, 1849. urtean Kaxiriaindik (Txulapain) edo etorri zen Imotza, zirujau (Bigarren mailako medikua) eta 1850. urtean hil zitzaion andrea bat-batean, eta oliadura ere akordurik gabe zegoenean eman zioten.



Erasoko Eliza eta Apezetxea. Hau, gelostarren azken bizitza

Bazituen 50 urte alargundu zenean eta ez zuen sosik, zorrak bai. Alarguna zenez, notarioaren aurrean egin zuen inbentarioan agertzen dira zor eta hartzekoak.

Alargundu eta ezkondu beharretan laster hasi zen. Eta baita ezkondu ere hurrengo urtearen abuztuaren 11n, Zarranzko Etxeberriko Maria Angela Erviti Mariñelarenarekin, 34 urtekoa, Pedro eta Ferminaren alaba. Fermina sortez Goldarazkoa, Gilleneko alaba.

Eta ezkontzara dote polita ekarri zuen Maria Angelak. Eta senarrak bere ofizioaren errentak, besterik ez. Hori da jartzen duena Ezkontza Hitzarmenean. Emakume honek ez zekien irakurtzen eta idazten, orduko emakume gehientsuenek bezala. Basaburua eta Imotzen mediku bat izaten zuten eta gero, ibar bakoitzean, zirujau bana. Garai hartan, diru eskasia zela eta, medikurik gabe egon ziren urte frankoz.

Zirujau hau oso diruzalea ageri zaigu, eta lan asko eman zuen, beti soldata goratzeko eskean ibiltzen baitzen udalean. Ez dakigu kontu hauengatik edo etxekoandre txuku-

na eta zuhurra hartu zuelako, baina Gelos dirutu egin zen zahartzerako.

Gero, Imozko udalak, medikua ere behar zuela eta, Martin Berruete zeritzan bat ekarri zuen 1873. urtean, eta jakina, Gelosek Oskozko medikuaren etxea utzi beharra izan zuen eta Erasoko Etxeberrira pasatu zen bizitzera. Dena dela, Imozko zirujau izaten segitu zuen.

Hemen eman zuen azken hatsa, 1874ko otsailaren 12an, 74 urtetan. Urtebete besterik ez zuen Erason egin. Harrigarria ere bada, nola hil zen testamentua egin gabe.

Gero familia, Etxalekura etorri zen bizitzera, Julinea deitzen den etxera, eta handik urte batzuetara berriz ere Erasora, Apezetxera, apezaren zerbitzari, 1880. urteko Erroldan ageri den bezala.

Eta hemendik, luze baino lehen, joan ziren ama-alabak. Ez dakigu nora, ez dakigu zergatik. Hori bai, hemen utzirik lau seme-alabetatik, hiru, bi Etxalekun eta bestea, ustez, Oskotzen, denak ere ongi gazterik, gaztetxoak, hil zirelarik. Familiaren hondamendia.

Non dira gurutzeak?

Bi gurutzeak desagertu dira. Harrizkoa dudarik gabe lizarra zegoen lekuan jarria izanen zen, mutikoa hil zen toki berean, baina gero, partzelak egin zirenean, Gesaltzarretako errekaen bestaldera pasatua behar du izan.

Gurutze hau, harrizkoa eta nahiko ederra, karretera zabaltzerakoan, gaineko aldetik lurra kentzean, azpiko aldera bota eta ederki estali zuten, batere

oztoporik egiten ez zuena. Horrelako lanak egiten dira askotan, ez ikusi, ez galdetu, dena dute zila, dena dute zelai. Jo eta aurrera!

Eta lizarrean zegoen gurutzettoa, berriz, Concentraci6n Parcelaria edo Alorren berrantolatzea egin zenean, lizarrak kendu eta aldi berean burdinazko gurutze ttikia berekin joan zen. Horrela desagertua izaten da.



IGAN: Igo.
AGIRI: Dokumentu
BEXKIXA: Paskiza. Esperantzaz edo.
AFERA: Kontua, asunto.
GARES: Puente la Reina.
KAXIRIAIN: Gartziriain

TXULAPAIN: Juslapeña.
ZERITZAN: Deitzen zen.
EZKONTZA HITZARMENA: CAPITULACIONES MATRIMONIALES
DIRUTU: aberastu



BERRIKETAN

JORGE DIEZ, AIZAROKO BIZILAGUNA ETA ARTISTA DIGITALA:

“Dauden muga bakarrak geure buruari jartzen dizkiogunak dira”

Herriko ostatuan duela gutxi hasi da Jorge lanean. Baina ez gara gaur sukaldeko kontuei buruz arituko, baizik eta arteari buruz. Apeztegiberrin egindako erakusketa ikusgarriak atentzioa deitu zigun bere diseinu “surrealistak” zirela eta. Noizbehinka egiten dugun bezala, ale honetan aldizkariarekin kolaboratzeko eskatu diogu, aldizkari honetan bere irudiak han hemen txertatuz. Goiburuan esaten den bezala, gaur egun gure eskura ditugun tresnekin sorkuntza oso anitza izan daiteke.

Nola hasi zinen diseinuan?

Txikitatik arte mota guztietarako joera izan dut, marrazkia, musika, zinema, literatura... Diseinuari dagokionez, nik uste nuen marraztearekin oso lotuta zegoela; horregatik, betidanik koadernoetan zirriborroak egiten aritu banaiz ere, neure burua oso mugatua ikusten nuen trebetasun horretan. Hala ere, duela lau urte inguru, oharturik artista batzuek bere proiektuak garatzeko gero eta tresna informatiko gehiago erabiltzen dituztela, horretan saiatzea erabaki nuen. Gauza harrigarriak egiten ahal ditudala egiaztatu nuen. Eta, beti imajinazio handikoa izan naizenez, bururatzen zitzaidan guztia kanporatzen hasi nintzen.

Zertan inspiratzen zara?

Jakin-min handikoa naiz, eta beti ari naiz atentzioa ematen didan guziari erreparatu eta nire diseinuetan irudikatzen. Nolanahi ere, aitortu behar dut gai misteriotsu eta ilunek erakartzen nautela, hala nola, magiak, heriotzak... Baina, ez zerbait gaizto edo odoltsu gisa, estetiko baizik. Figura abstraktuak ere oso gustukoak ditut.

Zer teknikak erabiltzen dituzu?

Artista digitalizat daukat neure burua, nire lanak egiteko ordenagailuko programak (Photoshop, Gimp, Blender...) erabiltzen baitut. Tutorial pila bat dago interneten, asko ikasten da eta zuk zeuk eginiko lanei aplikatzen ahal diozu ikasitakoa.

Beste proiektu berriren bat baduzu?

Beti izaten ditut ideia berriak buruan; beraz, beti ari naiz teknika berriak sortzen edo ikasten. Beste artista batzuekin batera lan egitea gustatuko litzaidake. Gauza berriak eta interesgarriak ekartzen ditu beti.

Zer esango zenioke jendeari argazkiak eta diseinuak egiten animatzeko?

Ez jartzeko mugak bere buruari. Gustukoa duten horren alde ekiteko. Gaur egun baliabide eta bitarteko anitz ditugu eskura, eta dauden muga bakarrak geure buruari jartzen dizkiogunak dira. Besteekin konparatzeari utzi behar diogu, eta “nik ez dut balio”, “ez naiz horretarako gai” eta antzeko mezuak baztertu behar ditugu. Denok dugu munduari begiratzeko ikuspegi propioa eta, segur aski, interesgarria. Gainera, artea pixka bat gutxietsita dago, eta eskertzeakoa da beti artista berriak sortzea.



BERRIKETAN

CARLOS ASTRAIN, ANOTZIBARKO SUHILTZAILEA

“Bereziki hotzari aurre egiteko laguntza eman genien errefuxiatuei Belgradon”

Anotzibartik Belgradora joan zen Carlos duela hilabete. Bertan dauden errefuxiatuei laguntza ematea zen helburua, Serbiako negu gorriari aurre egiteko. Help-Na, Nafarroako suhiltzaileen laguntza elkartearekin joan zen hara.

Nola erabaki zenuen Belgradora joatea?

Hasieran ez nuen pentsatua, baina ikusita bi suhiltzailek joateko asmoa zutela ni ere animatu nintzen. Egundak batetik bestera hartu nuen erabakia, eta bi egunetara abiatu ginen Belgradora.

Nola izan zen bidaia?

Furgonetaz atera ginen hemendik. Ez genekien zehazki zer eraman, eta hainbat lantresna eraman genituen gero han lagundu ahal izateko. Arropa lodia ere eraman genuen, beharko zuten edo ez jakin ez arren. Honela, lehenengo egunean Frantzia eta Italia arteko mugara iritsi ginen, eta hurrengo egunean Belgradoraino.

Zein izan zen aurkitu zenuten egoera?

Han badira Serbiako Gobernuak errefuxiatuendako sortutako guneak. Baina, askok ez dute bertan egon nahi kanporatuko dituztenen beldur. Orduan, errefuxiatu talde handi bat tren geltoki zahar batean bizirauten zuen, eta gu talde horrekin egon ginen. Bizi baldintza oso eskasetan bizi dira bertan. Berotzeko trenbideetako egurrak erabiltzen dituzte, eta oso toxikoa da hori.

Eta zuek zertan lagundu ahal izan zenuten?

Bereziki hotzari aurre egiteko laguntza eman genien, ez zezaten egur toxikoa erabili. Estufa batzuk egiten hasi ginen, beste estufa txiki batzuk eraman, egurra eraman... Beste batzuek janaria

ere eramaten zieten. Hala ere, gu saiatzen ginen banaketa egiten ilararik egin gabe, tristea baita hori. Beste era batera banatzen saiatzen ginen, beharraren arabera.

Zer esaten zuten errefuxiatuek?

Pakistan eta Afganistangoak ziren gehienak. Nik ingelesarekin komunikatzeko arazoak nituen, baina zerbait hitz egitea lortu genuen. Gehien harritu ninduen haien umiltasuna izan zen, eta bizitza duin bat bilatzeko esperantza.

Zer sentsazio duzu bertatik itzuli ondoren?

Guk laguntza pixka bat eman genien, haien egoerari partxe bat jarri, baina argi dago horrela ez dela arazoa konponduko. Irtenbidea politikoa da, Europar Batasuneko estatuena, eta egoera hori konpontzeko hemen egin behar dugu lan.



SAIOA MUÑOZ ETA MIKEL GERENDIAIN:

“Ziaurritzen beti izan gara nahiko saltseroak”

Herriko 5 pertsona elkartu dira berriz ere, urte batzuk pasata azken antzezlanaren zutenetik. Oraingoan haiek asmatutako gidoiarekin egiten dute, zehazki Mikel Gerendiainek idatzita, “La revolución de los geranios azules” izenburupean. Martxoaren 11n eta 12an izan ziren emanaldiak.

Nondik dator antzezlanaren egitearen ideia hau?

Hamaikagarren antzezlanaren izanena da hau. Nire lehengusu Cesarrek (duela urte batzuk hil egin zen) sortu zuen ideia hasieran, oso gazte gine-larik. Berak zuzentzen gintuen, eta festetan, aza-roan egiten genuen antzezlanak.

Beraz parranda egin ondoren?

Bai, denok bestondoarekin ginen, ez zen inor libratzen. Bagenuen gure ohitura bestondo horri buelta emateko, antzezlanak baino ordubete lehenago edo, izateko Anamariren etxera igotzen ginen, eta patxarara, kamamila eta aspirina hartzen genuen. Ez dakit zein ordenetan, baina bata bestea-ren atzetik!

Ohitura bilakatu zen festetan antzezlanaren egitea?

Bai, baina gero obra zailagoak egiten hasi ginen, luzeagoak... eta ezinezkoa zen hain denbora gutxian prestatzea. Orduan ez genuen festetan egiten, eta beste edozein asteburutan egiten genuen, prest zegoenean.

Urte batzuk antzezlanik gabe egon ostean, berriz bueltatu zarete.

Bai, gainera ilusio bereziarekin, ez delako obra ospetsu bat, Mikelek egindakoa baizik. Azken obra bertan behera utzi behar izan genuen, eta beraz, gogoan genuen berriz hasteko.

Eta aktoreak herrikoak?

Bai, beti herriko jendea. Erripako jendeari aipamena egitea ere gustatzen zait beti, asko lagundu gaituztelako beti, arroparekin, ilusioarekin... baina aktoreak Ziaurritzen. Aurten Ana Berta Elcano, Jesus Villaro, Ana Fernandez eta ni.

Zein izan da aurtengo obraren gaia?

Ez da azaltzen errazexa azaltzen. Gure ustez komedia da drama pixka batekin, gaur egungo bizitzarekin zerikusirik handia duena. Lau anai-arreben bizitzaren istorioa da, eta zentzu batean gure amen adinekoei edo pixka bat zaharragoei eskainia.

Zer dauka Ziaurritzen halako ekitaldiak izateko?

Bada, beti zian gara nahiko saltseroak. Afarietan gitarra jotzen genuen beti, abesten genuen, abestiak sortzen genituen... Txanpaina tartean izaten zen eta goizeko zazpiak arte egoten ginen gure amekin abesti zaharrak kantatzen. Gustatu izan zaigu musika eta antzerki mundua.

Haur asko dituzue Ziaurritzen, erreleboa seguru dago.

Bai, pila bat ditugu. Lanzko albistea ikusita, hementxo haurrak kontatzen hasi ginen, eta 20 haur dira 14 urte artekoak, eta 70 biztanle inguru gara hemen. Beraz, noizbait hartuko digute erreleboa bai.

Adinduendako kirol eta osasun ekimen berria

Proiektu berri bat aurkeztu nahi dizuegu. Zahartzen garen heinean gorputza zaintzearen garrantzia gero eta handiagoa dela badakigu; horregatik, bi zerbitzuen elkarlanean sortu da ekimen hau. Asier Uriarte kirol teknikariak galdera hauen bidez ekimena azaltzen digu.



ZER DA “ULTZAMA ALDEKO OSASUNA ETA KIROLA” PROIEKTU BERRIA?

Eskualdeko Kirol eta Osasun zerbitzuek elkarlanean prestatu duten proiektua da; hirugarren adineko bizilagunendako kirola eta osasuna batuz, hau da; kirol jardueren bitartez erabiltzaileen gorputzaldia hobetzea. Adibide praktikoa bat izan daiteke osasun etxetik ematen diren botiken dosia jaiste edo desagertzea. Halere, gaixo daudenez gain, erabiltzaile guztiek ere hobetuko dute haien osasuna.

ZERGATIK JARRI DUZUE MARTXAN PROIEKTU HAU?

Osasun zerbitzuen kudeaketa arazo baten aurrean gaude: biztanleria gero eta zaharkituagoa da, gurean eta orokorrean. Osasun etxeak jendez gainezka daude. Gobernuak konturatu dira botiken gastua gora eta gora besterik ez duela egiten eta horren harian, ikerketek kirolaren praktika gomendatzen dute. Diabetesa, bihotzeko arazoak, biriketako gaixotasunak, iktusak... zituzten bizilagunen bizi iraupena eta bizi kalitatea asko hobetzen zela ikusi zuten, eta, horregatik, orain guk ere garrantzi handia eman diogu ekimen honi.

ZEINTZUK DIRA PROIEKTU HONEN JARDUERAK?

Gaixo daudenek eta ez daudenek ere parte hartzen ahal dute, erabat irekiak izan dira jarduerak guztiak. Halere, gaixoekin 2 jarduerak egingo ditugu, hirugarren adineko eta 80 urtetik gorakoendako jarduerak terapeutikoa. Hiru hilabeteko jarduerak egingo dute erizainekin eta hauek proposatutako kirol osasuntsua egingo dute astean bitan.

Gaixo ez daudenendako, berriz, hirugarren adineko jarduerak fisikoko taldea osatuko dugu. Urte osoko jarduerak izan dira, pertsona guztiendako irekia. Talde honetan entrenamendu fisikoak egingo dira, baita “paseo osasuntsuak” ere; natura eta ingurumenari esker kirola erakargarriagoa izateko. Talde lanaz gain, bakoitzak indibidualki egiten ahal ditu gomendatzen ditugun entrenamenduak ere.

NOIZ AURKEZTUKO DUZUE?

-Martxoaren 14an 16:30ean Ultzama aldeko Gizar-te Etxean, jubilatuei egingo diegun hitzaldi batean.

-Paseo Osasuntsua, martxoaren 22an 10:00ean egingo dugu, Osasun etxetik abiatuta.



**BIDALI ZURE
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...
pulunpe@gmail.com
HELBIDERA**

Euskara zaharkeria bat da

Iruñean bizi da. Oso gazterik joan zen hiriburura, kapitalera, nire adiskide hau. Zer nahi duzu, ttiki-ttikifatik zetorkion alde egiteko gogo. Eta aise nabaritutako duzue zergatik. Oraindik zer duen bere buruan ere bai.



Harritzko teilatu zahar batean zaharkeria bat.

Gaurkoan ez dut jarriko protagonistaren ize-na. B. deituko diot. Isilpean gelditu dadila, gure emakume adiskide honen identitatea, eta baita zein herritakoa den ere. Berak ibiltzen duen euskara ere ez dut jarriko bere ezpainetan, gure herrikoa jarriko dut. Ez nuke nahi inork igartztea nor den. Hori bai, gure alderdikoa da.

Atxoa, dotore jantzia, ongi pintatua, ongi hitz egi-na, bizi ikaragarria, hitz batez, pertxenta halakoa! Xahartu da, baina oraindik kalduarra gora du. Atzo egon nintzen berarekin Iruñean. Bere herrira joateko afizio handirik ere ez du izan, eta horrela esan dit: "Ama bizi zen artio bai. Gio e'naiz asko joan izan. Zertako. Quita! Quita! Atzeratu batzuk besteik ez de. Nekazarik!? Gio're! Zetako lan in! Deus ez ebazteko? Un retraso, un retraso!" Ezkondu ere Iruñean ezkondu zen. Bertan topatu zuen gizona nahiz Frantziako muga ondo-ondokoa izan. Euskaldun garbi-garbia. "Nai ba'uzu egie esain dizut. Ne senarra ta biok ez ga aittu iñoiz euskias. Sekule'z. Zetako? Zarkeri

bat da, zarkeri bat. Euskia? Tori! Diustako ez'ta!" **J**akina, honek gordin-gordin esaten du bere iri-tzia. Bere sentimendua garbi azaldu dit. Beste batzuek, Iruñerriara etorri diren euskaldun gehienek ez dute horrelakorik esaten, ez baitituzte beren sentimenduak gogoetatu, ez baitituzte arrazoi-z jantzi, emakume honek bezala. Hala ere, be-ren egiteetan oraindik urrunago joan dira, hizkun-tza erabat herdoiltzeraino batzuk. Beste batzuk atzentzeraino. Hitzetan ez baina egitateetan B. baino urrunago joan dira. Hau gutxienez, euskaraz oso erraz ari da.

Entzun behar ditugun ateraldiak atxo honen par-tetik!

Horrelakorik ez da ikusten ez Ingalaterran, ez Por-tugalen eta ez Grezian. Eta zergatik gertatzen zai-gu Euskal Herrian?

Bon-bon eta bon-bon, banoa salto batean herriko ostatura. Gaurkoan baso pare bat ardo frexko be-harko ditut. Izan ongi.



IGARRI. Ierri euskalkian. Asmatu
ATXOA. Atsoa, maitasunez, hurbiltasunez...
ibiltzen denean.
KALDURRA: Gandorra. Cresta.

EGITEA. Hecho
EGITATEAK: acciones
HERDOILDU: OXIDAR

Berdintasunaren alde bi ekimen

Martxoak 8 berriz, baina egunero al da martxoak 8? Azken asteetan eraildako emakumeen izenak ezagututa, soldaten desberdintasunei buruzko datuak ikustean, zenbait gairen aurrean hedabideek eta sare sozialetan ematen diren jarrerak ikusita eta gure etxe eta tabernetan ikusten direnak ikusita, argi dago, egunero ez dela martxoak 8. Beharrezkoak, beraz, hurrengo ekimen hauek eta etorriko diren guztiak ere.



SEINALE MOREAK ERREPIDEAN BIOLEN-TZIA MATXISTEN AURKA

Eskualdeko udal gehienek (Anue ez da eki-menean sartu) seinale moreak jarriko dituzte herriko sarreretan, errepide alboetan, eraso

sexistak salatzeke eta arbuiatzeko. Berdintasun Ba-tzordeak proposamen honekin, gure eskualdeko udalek indarkeria sexista oro salatzen dutela ikusa-razi nahi izan du, baita jendartea gaiarekin sentsibi-lizatzen jarraitu ere. Bailara bakoitzeko ikurretan ho-nako esaldi hau agertzen da: "Hemen ez dugu eraso sexistarik onartzen".

"Herrietako jendearendako eta bisitariendako eki-men on eta zirrargarria" dela esan digu Berdinta-sun Teknikari Josune Antxok: "Gure bailarak halako erasoak onartzen ez dituzten udalerrri deklaritzen ditugu. Erakundeek bortizkeria hori salatzeke aha-legina egin behar dute, eta baita bortizkeria mota horiek behin betiko desagertu daitezzen lan egin.

Ekintza hau eraso sexisten kontrako sentsibilizazio kanpaina baten barruan kokatuta dago". Hala ere, Berdintasun Zerbitzutik gogoratu nahi di-gute etenik ez duen lana dela hau eta beste ekintza batzuk eginen direla genero indarkeria prebenitze-ko eta salatzeke.

EZKONTZERAKO ORDUAN, ERANTZUNKI-DEITASUNARI BURUZKO HITZARMENA

Ezkontza erritual askotan erabili ohi dira jura-mentu edota hitzarmenak. Erritual hauek gi-zartearekin batera aldatuz doaz eta gero eta anitzagoak dira. Datu ofizialen arabera, gaur egun espainiar estatuan egiten diren ezkontzen %70 inguru, elizatik at egiten dira. Bikoteen erlazioan legezko pausu hori ematerako orduan erantzunkidetasunari buruzko hitzarmen bat egotea proposatzen da Berdintasun Batzorde-tik. Aldizkarian sartu duguna Ultzamakoa bada ere, eskualdeko udal bakoitzak berea izanen du.

Berdintasun Zerbitzutik bikoteak animatu nahi di-tuzte honako esaldiarekin: "Ongi legoke bikoteki-deei sinatzera animatzea eta beraien zeremonian irakurtzea testua". Halere, hitzarmen honek balio juridikorik ez duela gogorarazten digute, balio "sin-bolikoa" baizik: "Ekintza honen helburua bikote kideen arteko erantzunkidetasuna eta harreman onak bultzatzea da".

ADOSTEN ETA HITZEMATEN DUGU

- 1.- Etxeko lanak, zaintze-lanak eta familia-ardurak, baita horiei dagokien denbora ere, banatu, partekatu eta antolatuko ditugula etxe barnean eta kanpoan.
- 2.- Bion premiak errespetatuko ditugula eta espazioa eta denbora berdintasunez banatuko ditugula.
- 3.- Familian aukera berdintasuna sustatuko dugula.
- 4.- Elkar maitatzea, babestea, errespetuan oinarritutako harremana sortzea, alegia.
- 5.- Gatazkak gainditzeko negoziatzeko erabiliko dugula, ezarpena eta menpekotasuna ekiditeko.
- 6.- Elkar errespetatzea eta indarkeriarik ez erabiltzea gure harremanean, ez eta gure familiarekin, ez eta seme-alabekin, edozein motatakoa izanda ere (indarkeria fisikoa, hitzezkoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala...)

Hitzarmen hau betetzeko konpromisoa hartzen dugu bidezko bizikidetzaz lortzeko, eta baita aldan-aldean berrikusteko konpromisoa ere, eta guzti hori frogatzeko agiri hau sinatzen dugu.

Sinadurak:

Nekazaritza ekologiarantz

Nekazaritza ekologikoa geroz eta gehiago entzuten eta praktikatzen ari garen kontzeptua da. “Modan” dagoela esan liteke, eta beharrezkoa dela ere bai.

Aurreko aldizkarietan ere gai hau jorratu dugu: nekazaritza ekologiararen inguruko hitzaldiak, tailerrak, Brasilgo MSTren esperientzia, eta abar. Oraingoan, eskualdetik pixka bat aterata, Baztango esperientzia jasoko dugu.

BAZTANGO AGROEKOLOGIA ESKOLA HERRITARRA

Baztanen baziren hainbat nekazari eta elkarte nekazaritza ekologikoaren bidea hartu zutenak. Oraingoan indarrak elkartu, eta lehen egiten zituzten tailer, ikastaro eta bestelakoak batera egiten dituzte. Honela sortu dute Baztango Agroekologia eskola herritarra.

FRUTA-ARBOLEN INAUSKETA IKASTAROA
OtsailaK 4 | Irakaslea: Xabier Aizua

BERTAKO HAZIAREN EGUNA
Martxoak 11 | Aurtengo edizioa LEKARÖZen
08:30 Fruta-arboletan neguko txerto ikastaroa
11:30 Hazien-trukea
12:30 Jakoba Errekondoren mintzaldia

SAGARDO DASTAKETA
Martxoan | ARIZKUNgo GAMIOXARREA DOLAREAN

BAZKEN ALDIZKATZE IKASTAROA
Apirilak 29 | ANIZko JAUREGIAN
Irakasleak: Aitor eta Mikel Azkarate

EZTIGINTZA ETA ERLEZAINTZAREN HASTAPENAK
Maiatzak 20 | Irakaslea: Jaime Anduaga

FRUTA-ARBOLEN UDAKO TXERTO IKASTAROA
Abuztuan | Elutseko mintzita-komunalean

BERTAKO ZUHAITZ ESPEZIE ETA BARIETATEAK EZAGUTZEKO IBILALDIA
Irailan | ANIZen. | Irakaslea: Xabier Zabaleta

SAGAR DASTAKETA
Urrian

ZERRI-MONDONGA IKASTARO TEORIKO ETA PRAKTIKOA
Azaroan

BAZTANgo

AGRO EKOLOGIA

ESKOLA HERRITARRA

2017 IKASTURTEA

Antolatzaileak: Hazitik Hozie, Jo ala Jo, Anizko elkarteak, Legate elkatea, EHNE eta Baztango Udala.

Informazio eguneratua www.baztan.eus -n

Joseba Otondo Baztango alkatearekin hitz egin dugu, eta agroekologia eskolaren garrantzia azpimarratu digu. Nekazaritzak eta abeltzaintzak beherako joera duten honetan, horien baitan alternatiba estrategikoak bilatzea ezinbestekoa dela dio, eta agroekologia izan daitekeela horietako bat.

Lehen egiten zituzten ekimen txiki guztiak batuta, ikusgarritasuna ematea lortu dute orain. Lehen proba izanen da aurtengoa, baina programazioa eta parte-hartzaile kopurua handituz joanen dela aurreikusten dute.

Eskerrik asko, Joar!

Eskerrik asko, beti zurekin eta zure irribarre handiarekin batera joaten zen adierazpen hori, beti denaren esker onekoa eta bizitzaren une oroz gatzatuz, lagunekin, familiarekin, adinduekin, haur txikiekin... Beti zu, beti zoriontsu.

Bizitza honetan, non esker ona, leialtasuna, elkar ulertzea, ontasuna, zintzotasuna, zoriontasuna... eta antzeko baloreak zaharkiturik diruditen, balore horiek guztiak zure eskutik joaten ziren egunero, eta hori beti eskertuko dizugu.

Gogoan dut txokora eramaten zintudanean, gosaltzeko urdaiazpiko tortilla egiten nizunean, lruñetik txandal bat ekartzen nizunean, beti denarekin eskertuta, Eskerrik asko, Aita! Eskerrik asko eman didazun guztiagatik, eta zurekin ikasi dudun guztiagatik. Elkarrekin egon ginen momentu horiek guztiak, “frego”arekin, ehizan, pirinioetan...

Pilotan, bolea makur horiek eta sakerako lasterketa mundukorik onenak ziren niretzat. Oraindik gogoratzen dut negarra eragin zenidan gabon gau hura, afaldu ondoren ordenagailura eraman eta elkarrekin eginak genituen gailur guztiekin prestatu zenuen bideoklipa erakutsi zenidanean, eta beste behin ere: “Eskerrik asko elkarrekin izan ditugun une horiengatik guztiengatik”. Izugarria! Eskerrik asko!

Arnasa hartzeko ere indarrak ez dudun honetan, sofán etzanda ikusten zaitut, eta ohartzen naiz gaizki egoten denean ez gorputzak ez buruak ez dutela behar bezala funtzionatzen. Barkamena eskatzen dizut gaizki zeundela igartzen ez bainuen jakin izan, agian egiterik ez zenuen gauzak egiteko eskatzeagatik, zurekin ulerkorrago ez izateagatik.

Lagun guztiok Joarrez harro egon zaitezke. Ez dizue inoiz huts egin eta ez lizueke inoiz huts egiten. Adiskide, seme, biloba, anaia... eredugarria zen, erreferentziazkotzat izateko modukoa; baina, bere bizitzaren une batean huts egin zuen. Denok egonen ginatke bere ondoan “ez dakit zer” gainditzen laguntzeko, eta irtenbidea aurkituko genuke.

Eskerrik asko, Joar, utzi dizkiguzun une polit guztiengatik. Beti joanen zara gure ondoan ibiltzen, mutil.

Azkenik, idazki hau irakurtzen duzuen neska-mutil guztioi esan nahi dizuet zuen arazoak norbaiti jakinaraziteko, gurasoei, lagunei, nahi duzuenari, beti egonen baita norbait zuek entzuteko, ulertzeko eta laguntzeko prest. Eta orain indartsu izan behar dugu eta aurrera egin behar dugu. Joarrek nahiko lukeen bezala, bere irribarre inoiz atzendu gabe eta beti gure bihotzean.

“... y las lagrimas cayeron.
Triunfo máximo del corazón.
Trayendo vida al vacío,
llenando mi existencia con el amor que las causó”.

Eskerrik asko Joar!
Beti bihotzean!



2017ko ilbeltza. Gure alderdian, urtarila edo ilbeltzean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIOZAK

BASABURUA

JAUNTSARATS

Urko Martin Palacin, Roberto eta Noeliaren semea, 2017ko urtarilaren 8an jaioa.

Ongi etorri jaio berriari eta zorionak bere gurasoei!

EZKONTZAK

IMOTZ

ETXALEKU

Hodei Arada Goialde, Etxalekuko semea, Maite Elizalde Argüelles, Iruñeko alabarekin. Ur-tarrilaren 16an ezkondu ziren. *Ereinotza* etxean bizi dira.

Zorionak, eta anitz urtez.

HERIOTZAK

BASABURUA

BERUETE

Martin Arrarats Agirre, 2017ko urtarilaren 15ean hil zen. Garaikoko nagusia.

ITSASO

Jose Luis Auza Mugiro, urtarilaren 17an.

Mikelexeneko bordako nagusia.

UDABE

Pedro Sala Iribarren, urtarilaren 14an, Kiliminzarreko semea.

LANTZ

Josefa Espinal Iriberrí, urtarilaren 14an hil zen, Zurginen etxeko etxe-koandrea.

ULTZAMA

ELTZABURU

Jose Iribarren Arangoa, 2017ko urtarilaren lehen hil zen.

LIZASO

Pedro Maria Antzizu Eguarats, urtarilaren 25ean. Mandaxeneko nagusia.

URRITZOLA

Rosalía Elkano Irigoien, urtarilaren 7an hil zen. Bortaneko etxe-koandrea zaharra.

Gure oroimenean izanen zarete.



Martin eta anaiak



Hodei, Maite eta familia




Martin Arrarats




Pedro Antzizu



Jose Luis Auza



Josefa



Periko



Rosalía



Joxe Iribarren

Fontaneria Arriazu
REFORMAS COCINAS Y BAÑOS-CALDERAS LEÑA Y GAS- INSTALACION
DESCALCIFICADORES
FONTANERIA Y CALEFACCIÓN AROZTEGI (ATEZ)
fontaneriaarriazu@gmail.com
Tno. 676 163780
www.fontaneriaarriazu.es

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Taller mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Alzatoratz (Basaburua)

info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com
gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe
ZIAURRITZ

